ERANSKINA

(Urriaren 16ko 430/2020 Ebazpenaren XIII. eranskina aldatzen du)

IGOERA ETA ZIURTAPEN IRIZPIDEAK, NAFARROAKO FORU KOMUNITATEAN ARAUBIDE BEREZIKO HIZKUNTZA IRAKASKUNTZETAKO MAILETAN APLIKATU BEHARREKOAK

1.–Igoera irizpideak ikasle ofizialentzat.

a) A1 oinarrizko maila, A2 oinarrizko maila, B2.1 tarteko maila eta C2.1 maila aurreratua.

Ikasleak mailaz igoko dira deialdi arruntean etengabeko ebaluazioaren bidez edo deialdi berezian (iraileko azterketa) gutxienez 5 puntu lortuta (edo %50) ebaluatzen den hizkuntza jarduera bakoitzean.

b) B1 tarteko maila, B2.2 tarteko maila eta C1 maila aurreratua.

Ikasleak mailaz igoko dira gutxienez 5 puntu lortuta (edo %50) ebaluatzen den hizkuntza jarduera bakoitzean kasuan kasuko ziurtapen proban.

c) Maila igoeraren gaineko kalifikazioa honela jasoko da ebaluazio agirietan: "Mailaz igotzen da" idatzita, eta horren ondoren zenbakizko nota (5 edo hortik gorakoa, dezimal batekin), edo, bestela, "Ez-gai" idatzita.

2.–Ziurtapen irizpideak ikasle ofizial zein libreentzat.

a) A1 oinarrizko maila eta A2 oinarrizko maila.

Ikasleek, indarreko zehaztapenen arabera, ziurtapena lortuko dute guztira 6ko edo hortik gorako nota jasotzen badute 10en gainean (edo guztizkoaren %60). Gainera, probaren barruko hizkuntza jarduera bakoitza gainditu beharko dute, 5eko edo 5etik gorako nota lortuta (edo %50).

b) B1, B2.2, C1 eta C2.2 mailak.

Ikasleek, indarreko zehaztapenen arabera, ziurtapena lortuko dute guztira 6,5eko edo hortik gorako nota jasotzen badute (edo guztizkoaren %65), eta, gainera, probaren barruko hizkuntza jarduera bakoitzean gutxienez 5 puntu lortu beharko dituzte (edo guztizkoaren %50).

c) Ziurtapenaren gaineko kalifikazioa honela jasoko da ebaluazio agirietan: "Gai" idatzita, eta horren ondoren zenbakizko nota jarrita dezimal batekin, "Ez-gai" idatzita, edo "Ez aurkeztua" idatzita.